

Bukatu dira Astigarragako Santioak, Santa Anako festa jendetsuarekin

Kronika - Erredakzioa 2022-07-27 00:00



Goizetik eguerdira girotu zuten herria, Zubietako joaldunek.

Milaka lagun gerturatu ziren Foru Plazara atzo, Santa Ana eguneko ospakizunaz gozatzer. Egun ederrarekin eman zieten bukaera, aurtengo jaiei.

Modurik onenean agurtu zituzten Santio Jaiak atzo astigartarrek: Santa Anako ospakizunen inguruan sekulako jendetza elkartuta, eta giro paregabe. Egun haundietako itxura berreskuratu zuen Foru Plazak atzo, goizetik iluntzera; eta ikusmin haundia sortu zuten, bertan jokatu ziren probek. Eguerdiko deman, Mixiyuaren idi pare nagusitu zen, ia 52 plazako marka ederrarekin. Eta bigarren mailako Gipuzkoako Aizkolari Txapelketan, azkeneko kolpeetan nagusitu zitzaion Jesus Mari Mujika, Basozabaleko Jokin Urretabizkaiari. Txapela eta lehenengo mailan aritzeko aukera kendu zizkion horrela.



Festa borobildu zuten Zubietako joaldunek, Xabier eta Joxan trikitilariak, Oihana Iguaran eta Onintza Enbeita bertsolariek, Brun burdingintzako artisauek, Lierni Osa eta Hodei Iruretagoiena harrijasotzaileek, eta nola ez, 13 sagardotegitako sagardoek.

Zezensuzkoarenak izan ziren, Santiotako suaren azkeneko txinpartak; baina ez ziren itzali, Laiotzek denak dantzan jarri zituen arte.

Santiotako argazki guztiak ikusgai, 'kronika.eus'en

Festak bukatuta, bizitakoak oroitzeko ordua iritsi da, eta lan hori errazteko aukera dute, *kronika.eus* webgunea bisitatzen dutenek. Egun guztietako argazkiak daude ikusgai, bertan.





[Kultura Astigarraga](#)

Erlazionatuak



[Astigarragako Santioak - Uztailak 26](#)

Kronika - Erredakzioa uzt 26 [Astigarraga](#)

Kronika egunero, euskaraz eta doan jasotzen segi ahal izateko, Kronikakide gehiago behar dira, eta zer esanik ez, proiektu komunikatibo sendo eta profesional bat garatu nahi badugu.

Egin zaitez KronikaKide!

Erantzun ▼



Ikusienak



[Mondragon Unibertsitateak, Galarretako campuseko ingenieritzako 120 ikasle berrirekin hasi du ikasturtea](#)

Kronika - Erredakzioa
ira 27, 00:00 [Hernani](#)



['Burujabetzen herrian biziko gara' kanpaina aurkezteko, ekitaldi irekia, larunbatean](#)

Kronika - Erredakzioa
ira 28, 00:00 [Hernani](#)



[Atzo hasi zen epaiketa hiru gizonen aurka, 2020an beste gizon bat hiltzen saiatzeagatik](#)

Kronika - Erredakzioa
ira 27, 08:55 [Hernani](#)



[Gudari eguna dela eta, ekitaldia antolatu du Sortuk, gaurko](#)

Kronika - Erredakzioa
ira 27, 00:00 [Hernani](#)



[Mundarrok irabazi du derbia, berriro ere](#)

Kronika - Erredakzioa
ira 27, 00:00



[Sekulako festarekin ospatu zuten mende erdia 1972koek!](#)

Kronika - Erredakzioa
ira 26 [Hernani](#)

Kronika.eus

[Dobera Euskara Elkarte](#)

Larramendi kalea 11, Hernani

Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · [kronika\[ABILDUA\]kronika.eus](#)



Codesyntaxek garatua



[HONI BURUZ](#)

[LEGE OHARRA](#)

[PUBLIZITATEA](#)

[ARAUAK](#)

[HARRERMANETARAKO](#)

[RSS](#)



Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#)

[AIKOR](#)

[AIURRI](#)

[ALEA](#)

[AMEZTI](#)

[ANBOTO](#)

[ANTXETA](#)

[ATARIA](#)

[BALEIKE](#)

[BARREN](#)

[BEGITU](#)

[DEUSTUALDEA PREST](#)

[ERLO TELEBISTA](#)

[ERRAN](#)

[EUSKALERRIA IRRATIA](#)

[GEURIA](#)

[GOIENA](#)

[GOIERRI TELEBISTA](#)

[GUAIXE](#)

[HIRUKA](#)

[KARKARA](#) [KRONIKA](#) [MAILOPE](#) [MAXIXATZEN](#) [NOAUA](#) [OIZMENDI TELEBISTA](#) [PLAENTXIA](#) [TXINTXARRI](#) [URIOLA](#) [UZTARRIA](#)

[28 KANALA](#)

[Gurean](#) [Plazanbazan](#) [Ttap](#)

[Tokikom publizitatea](#)